

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

52. zenbakia

94ko uztailak 22



Jai eta opor usaia

Nagusia, 6
ORDIZIA

Goen
FOTO

● Lake Oiarbide
ARGAZKILARIA

FOTOETXerekin elkarlanean



FUJI FILM

KALITATEAREKIN

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU



Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei

ZERAINGO UDALETXEA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak eza-gutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.



Serragi TAPIZ DENDA DEKORAZIOA

Festa onak pasa!

Goierrri, 12

ORDIZIA

☎ 88 31 53

orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 161463.

124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre, Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Marijoxe Madariaga, Joxe Be-
girstain, Ana Irastorza, Aitor
Calvillo, Rufino Iraola, Aloña
Galarraga, Gabino Murua, Xa-
bier Iraola, Antonio Berasategi,
Jon Imanol Iturrioz, Jose Anjel
Lizarraga, Arantxa Arza, Iñaki
Amundarain eta Edurne Albizu.
Azaleko argazkia: Dioni
**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANtA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
izunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Xabier Martinez Chicagon sukaldari

*Futbol Mundiala apro-
betxatuz, Espainiako Ki-
rolaren Kontseilu Nagu-
siak antolaturik eta Eusko
Jaurlaritzako Turismo eta
Merkataritza kontseilaria-
ren bitartez, Donostiako
Hostalaritza Eskolako 3
irakasle (Xabier Martinez
ordiziarra tartean) eta 13
ikasle Chicagon izan dira.*

**G.- Zertan izan zarete
Chicagon?**

E.- Espainiako Etxea anto-
latu zuen Madrileko Kiro-
laren Kontseilu Nagusiak.
Futbola ikustera joaten zi-
ren Estatuko lagunei zerbi-
tzua eskaintzea, eta bide ba-
tez euskal sukaldaritza bul-
tztatzea zen asmo nagusia.

**G.- Arrakastarik izan al
du?**

E.- Izugarrizkoa. Amerika-
rrek ez dute ezetz esaten.
Beti berdina jaten dute han,
gaizki ohituta daude eta de-
na probatzen dute, eta nos-
ki, dena gustatzen zaie. Ha-
ragi oso ona daukate baina
haragiarekin hanburgesak
bakarrik egiten dituzte. Ez
dago jateko kulturarik.
Idiazabalgo gazta asko
gustatu zaie.

**G.- Euskal sukaldaritza
onena al da benetan?**

E.- Guk gure sukaldaritza
modernizatu egin dugu eta
hori egiteko beste sukalda-
ritza mota batzuk ikusi eta
ikasi ditugu. Frantziakoak
eragin handia du euskal
sukaldaritzan. Besteetatik
onena hartu dugu gurea
onena egiteko.

Besteek esana

"Tolosaldeko Plan Es-
trategikoan Larraitzen area
errekratiboa jartzeko asmoa
agertu da. Jende asko etor-
tzen da eta aparkaleku eta
mahai gehiago jarriko dira
"ñañarri"n. Baina ez jende
gehiago ekartzeko. Herri-
bideak aprobetxatuz bide-
txurrak jarri nahi ditugu,
jendeak paseatzeko, baina
nere ustez jende gehiena
Larraitzetik Abaltzisketara
ibiltzen da paseatzen. Hori
zabaldur beharko litzateke,
arriskutsua delako, baina
Diputaziotik ez digute bai-
mena ematen. (...)"

Asentxio Otamendi,
Abaltzisketako Alkateak
"Galtzaundi"n.

"Kaleetan ikusten ari
garen zabor, beira, paper eta
ontzien edukinontziak,
errespetuz, era txukunean
eta jartzen diren helburue-
tarako soilik erabiltzea es-
katzen dizuegu, sortu dai-
tezkeen eragozpenak eta
akatsak (elkartasunez eta
helburua kontutan hartuz)
guztion artean konponduko
bait ditugu. Ez dezagun al-
perrik galdu gure etorkizu-
nerako hain garrantzitsua
izan daitekeen une hau,
orain bait daukagu gure in-
guruarekin zerbait egiteko
aukera."

Josune Agirre Sasietako
Lehendakariak "Beasain
eginez"-en.

*Eusko Jaurlaritza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eskutitzak

Ai telebista!

Telebista... Zorionekoak etxean telebistarik ez daukagunok! Egia izango da ikusteko moduko saioaren bat edo beste egoten dela noizbehinka, baina zenbat tontakeria, zenbat burukomin, zenbat iragarki, zenbat saio erabat manipulatu jasan beharra izaten duzue saio txukun bat jaso eta benetan gozatzeko? Izan ere, telebista erabiltzen jakingo bagenu, ikusi nahi duguna ikusteko soilik piztuz, gaitzerdi; baina ez dakigu...

Hain da pasiboa (egon eta jan, zerriak bezala gizendu arte!) nazka ematen didala. Hain da etxeko giroaren apurtzailea (ez elkarriketarik, ez platerean zer daukagunaren zentzurik...) nazka ematen didala. Hain da arrotza (ze hizkuntzatan dago gehiena?, nongo puntatako kontuak?...) nazka ematen didala.

Nik beti daukat zerbait egiteko, beti daukat zerbait pentsatzeko, beti zerbait esan eta entzuteko... eta ez daukat telebistarik, ezta ikusteko denborarik, ezta erosteko asmorik; hau suertea! Ez da gezurra kantatu batek dioena:

"...gu guztion, gu guztion
izorratzaile galanta:
TELEBISTA!

Mundutik at

Akatsa zuzenduz

Agur t'erdi:

GOIERRITARRAren 51. alean, 16. orrian eta Beasaini dedikatutako tartean, ikurrinaren gaiari buruz idazterakoan, akats nabarmen bat somatu dut.

Udal-batzarrak, EAJ, HB, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin onartutako mozioa EAJk eta EAK aurkeztutako mozioa zen eta ez HBk aurkeztutakoa.

Dena den, dagokion moduan akats hau zuzen dezazuela eskatzen dizuet, eta aurrerantzean Udaleko berriak jasotzerakoan zuzeneko informazioa edo behintzat kontrastatua izan dadila erretutuko nizuke.

Besterik gabe, izan ongi.

Jose Luis Arriola (Beasaingo Alkatea)

Zuzendaritzaren oharra:

Honelakoak-edo gerta ez daitezen, berriro informazio zuzenak eskatzen dizkiegu Goierriko Udal guztiei. Eskertuko genituzke, berri horiek egoki kontrasta ahal ditzagun.

Erredazio Batzordearen oharra

"Eskutitzak" saila, aldizkarian azaldutako edozein gaiari buruz edota interesgarri izan litekeen beste edozertaz, GOIERRITARRAko irakurleak adierazi nahi duena idatziz jasotzeko txoko irekia da.

Karta ez da inoiz ibili behar folio batetik gora (gainontzean kolaborazio moduan hartu genezake, eta derizkiogun modura laburtu ahal izango genuke). Bertan, idazlearen izen-abizenak, telefonoa edota helbidea, NAN zenbakia eta kaleratu nahi duen sinadura (ezizenez ere izenpetu liteke) eman beharko dira.

AMONANE

Nagusia 30

ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

UNTXUNDEI

Garajea



OSINALDE

Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

HEGOA

TABERNA

Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO

gaur

express
mezulariak

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38

Agenda

Intereseko Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:721614
Donostiako Erresidentzia: ..453800
Gurutze Gorria:272222
DYA:464622
SOS Deiak:088
Eguraldi informazioa:094
Errepideen egoera:288888
Ertzantza (Beasain):887350
Suhiltzaileak (Ordizia):881362
Renfe (Beasain):880853
Sarasola Garraioak:880710
Pesa Garraioak:880668
Estellesa (Donostia):470115
Itxaropenaren tfnoa:458005
HIES-SIDARI buruzko Inf.: 282666
Alkoholiko Anonimoak:276618
Goierrri Lanbide Eskola:880062
GOIERRITARRA889612



Errezeta



Maribi Amilibiak
emana
Siglo XX Jatetxea
Ordizia

ALBONDIGAK SALTSAN

Osagaiak:

Albondigak: kilo bat haragi pikatu, 2 arraultza, tipula txiki bat, 4 baratzi ale, 2 koilarakada ogi birrindua eta perrejil pixka bat.

Saltsa: tipula erdi bat, 2 baratzi ale, koilarakada bat irin eta olio pixka bat.

Tipula baratziak eta perrejila turmixetik pasa, haragiarekin nahastu, arraultzak eta ogi birrindua gehitu eta on-

do amasatu. Albondigak egin eta frijitu, kazuela batera pasatu eta urarekin tapatu, ardo txuri pixka bat gehitu eta orduerdi-ordubete bitarte egosi su txikian.

Saltsa egiteko olio zartagi batean jarri, tipula eta baratziak txikituta egin, irina gehitu eta bueltak eman doratu arte. Koladore batekin lagunduz, saltsa albondigen kazuelara pasa eta dena batera egosi, egin arte.



Bota bertsoa



Jon Imanol Iturrioz
Gaia: Tradizioaren ezia
eta eztena
Doinua: Loriak udan
ihintza bezala

Ordiziarrok, entzun pixkabat zirika datoz toberak: gorde ditugu garai bateko ohitura eta jarrerak, santaneroek lortzen dituzte dantzari onen manerak; baina festetan etxeko zeinek garbitzen ditu platerak?

Garai batean etortzen ziren alkate batzuk dantzara; gaur egun, berriz, Irungo bandak sartua digu zirrara; berarekin ia guztiok egiten dugu algara; eztiarekin, eztenarekin aza ez, erle baikara.

Taberna ALDASORO Jatetxea

Festa onak, pasa!

Urdaneta, 27

Tfnoa: 880023 - 881140

ORDIZIA

IRURENA

Lentzeria - Mertzzeria

Urdaneta, 29
ORDIZIA


☎ 88 04 47



☎ 16 02 48

K. Nagusia, 28
ORDIZIA

MUNDUATE Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfnoa: 88 12 72

ORDIZIA

Debaldeko

iragarkiak

Lana

□ Enpresarialeseko bi ikasleak kontabilitateko klase partikularrak ematen dituzte euskaraz Ordizian udan zehar. Tfnoa.: 161620, Jose Jabier.

□ Mekanografia lanak ordenadorez egiten dira. 882843 telefonoa, Eli.

Salerosketak

□ "Deville" ekonomika modernoa, egoera onean salgai, 110 litroko termoa ere badu. 885320ra dei, Telleriaz galdez.

□ Goierri anuntziatzen du GOIERRITARRAK. Gure propaganda, ez garestiena, bai onena! Merke-merke sartuko zara 3.700 txokotan (12.000 irakurle). Dei 889612ra (Inprenta-lanak ere egiten ditugu).

□ Bi akumulado estatiko, 2.600 w-koak salgai. Tel: 889651

Etxebizitzak

□ Hurrengo kurtsoan Donostian pisu bat betetzeko jendea behar dugu. Gela indibidualak, 17.000 pzt. Interesatuak dei eguerdian 800473 Begogatik galdez.

□ MADALENAK ITSA-SOKO ALEGIAN

Uztailak 21: 23.00etan, Joselu Anaiak.

Uztailak 22: 12.00etan, Meza Nagusia. Ondoren Aloña Etxeberria eta bere ki-deak trikitilariak. 19.00etan ume jokuak eta trikitilariak. 23.00etan Joselu Anaiak.

Uztailak 23: 20.30etan Herri afaria eta trikitilariak.

□ ITSASOKO JAIK

Abuztuak 23: 21.00etan Herri afaria, Juanito Mendizabal idiazabal dar txistekontalaria eta Zabaleta eta Imanol trikitilariak alaiturik.

Abuztuak 24: 11.30etan Meza Nagusia. 12.30etan Toka lehiaketa. Jarraian kalejira trikitilari gazteekin. 19.30etan Iparraldeko herri kirolak. Ondoren Rekalde Anaiak trikitilariak.

Abuztuak 25: 11.30etan Meza Nagusia. Ondoren kalejira trikitilari gazteekin. 19.00etan Ume jolasak eta jarraian Joseba Iparragirre bere taldearekin.

*Egun hauetan Itsasoko Keramika Eskolaren erakustaldia izango da.

□ ORDIZIA.

Uztailak 22: Gaueko Setan: Eliz Parrokian Santa Ana eta Santa Ana Txiki abesbatzek eskeinitako aparteko kontzertua Ana Madrazo eta Inma Goibururen zuzendaritzapean. 10,30etan: Zine emanaldia Beti Alai Pilotalekuan, Gazte Asanbladak antolatuta.

Egutegiak



31, larunbata: Goizeko 10etatik hasita "Albitxu" zelaian (Altamira auzotik igota) usakume tiraketak, colombaire erara, Azari Ehi-za eta Arrantza Elkarteak antolatuturik.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Uztailak 22: Cuesta; 23-24: Azpilikueta; 25: Arriola; 26: Urbizu; 27: Atorrasagasti; 28: Azpilikueta; 29-30-31: Jauregi. Abuztuak 1: Larnaga; 2: Cuesta; 3: Arriola; 4: Urbizu; 5: Atorrasagasti; 6-7: Cuesta; 8: Azpilikueta; 9: Jauregi; 10: Larnaga; 11: Cuesta; 12: Arriola; 13-14: Larnaga; 15: Urbizu; 16: Atorrasagasti; 17: Azpilikueta; 18: Jauregi.

Ordiziako Herri Antzokia:

Ostirala 22 "En el filo de la duda", 10,15. Larunbata, 23: "En el filo de la duda", 7,30-10,15. Uztailaren 24tik abuztuaren 19ra Herri Antzokia itxita egongo da, oporrak direla eta.

Mendizaleak:

Idiazabal K.E.: uztailak 23-24-25: Piedrafita- Balaitus-Panticosa: 9,00etan irteera, hiru egunetako ibilaldia).

Beasaingo Aitzgorri M.E.: Uztaila: Estatu-akanpada.

Pausogaizto Goierriko Mendizaleak: 1-7 Piriniotako hiru milak.



Dominguez

Urdaneta, 37

Aseguruen aholkularitza teknikoa

Bizitza aseguroetan espezialduak (Zure kasua aztertuko dugu). Aurkezte eta erretiro planak

☎ 16 10 97
ORDIZIA



INPRIMATEGIA URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 880446 Faxa: 161407 ORDIZIA



□ ZERAINGO FESTE-TAKO PROGRAMA

Abuztuak 14, Andramari bezpera: 11.30etan herriko gaztetxoan arteko futbito txapelketaren azken partidua. **16.00etan** haur jolasak. **18.00etan** herriko pala txapelketaren finala. **20.00etan** ohizko gibel-jatea, Liztormendi elkartean. **23.00etan** haur eta helduen danborrada. Ondoren goizalderarte dantzaldia Rekalde anaiekin.

Abuztuak 15, Andramari eguna: 9.00etan txistularien goiz eresia. **11.00etan** Meza Nagusia. **12.00etan** pelota partiduak: Otegi-Telleria (Segura) Jauregi-Sukiaren (Zaldibia) aurka; eta Aritz (Amezketak)- Etxeberria (Se-

gura) Intsausti- Gelbenzuren (Idiazabal) aurka. **17.00etan** bola txapelketa. **19.00etan** V. Trikitixa txapelketa. Ondoren Ibon Elorza eta Amagoia Gerrikoren dantza saioa. Eta jarraian Rekalde Anaia trikitilariekin dantzaldia.

Abuztuak 16, San Roke eguna: 9.00etan txistularien goiz eresia. **11.00etan** Meza Nagusia. **12.00etan** herri kirolak: Zeraingo taldea Beasaingoaren aurka. **20.30etan** herri afaria. Bertan, Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkano bertsolariak, Juanito Mendizabal txistekontalaria eta Martin eta bere taldea trikitilariak izango dira.



Arg.: Gema M. Arrugaeta

Bertako produktuak: xixahoriak, 2.000-3.000 pza. (12 kilo); onttoak (15 k.), 4.000; gibelurdi+ak, 3.000 (14 k.); **Abereak:** Arkuma, (45 buru) 525-565 pza.-k; untxia, 220; Antxuma 525; **Gaztak:** beheiena, 750-800 p.-k.; ardigazta, 1.350- 1.600; nahasia, 950-1.200; ahuntz gazta, 1.300. **BarazkiaK:** azaburua, 50-80; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarrun beltza 700-1.000 k.; gorria eta zuria, 400-600; baba berria, 200; letxua 40-60 b.; patata, 70-80 k.; porrua 100-150 x.; tipulina, 60-100 k.; to-

matea, 200-250; ozpinetako piperra, 400-500 p.-k.; baba txikia lekan, 200 k.; leka; 250; frantzesak, 200 k.; piper txorixeroa, 125-150 dozena. **Kanpoko produktuak:** frutak: arana, 300-350 k.; banana, 140-200; kiwia, 350 k.; bri-noia, 200-300; geriza, 350-450; laranja 150-200; limoia, 175-200; sagarra 175-250; udara, 125-175; meloia, 190-250 p.-k. **Kanpoko barazkiak:** leka, 250-300 k.; patata 75 k.; piper-gorria 350; berdea 290-325; tomatea 250-300; tipulina, 175 x..

Ana Irastorza




⇒ Eguneroko menua
⇒ Asteburuetan afariak kartan

Tfnoa.: 88 39 60
Gudarien etorbidea
ORDIZIA

Apartamendu, etxebizitza, garaje eta merkatal lokalen eraikuntza Ordiziako Euskal Herria kaleko 10. zenbakian.

PROMOTOREA:



Tfnoak.: 88 49 50 - 88 49 54
Filipineta, 13- behe esku.
ORDIZIA





Xabier Iraola
EAJko GBBko kidea
Legorretan zinegotzia

***“Hau duk
hau, lau katu
eta
mutur-joka,
horixe omen
da gure
patua”***

Hauteskundeak pasa dira eta iritsi da emaitzen balorapena egiteko garaia, zenbakien atzean dagoena aztertu eta hartu beharreko erabakiak hartzeko. Europarako hauteskundetarako kanpaina, egia esan, nahiko xelebre izan da; PSOE eta PP bata besteari mutur-joka, HB sistema osoa hankaz gora jarri behar dela eta, azkenik, EA eta EAJ-PNV Europari buruz hitzegiten. Igaro da zorroneko eguna eta zenbakiak zenbaki badira ere, bada zer pentsa eta komenta.

Goierrik, GOIERRITARAK argitaratutako koa-droa ikusirik, Gipuzkoa osoaren antzera bozkatu du, hau da, oraindik, beherakada nabarmena izan arren (ia-ia 500 botu gutxiago), HB dugu bailarako lehen indarra; bigarrenik, EAren porrota nabarmena eta izkuta ezina da (ia-ia 1.500 botu gutxiago); hirugarrenik, EAJ-PNV azaltzen da abertzaletasun demokratikoaren ardatz gisa; laugarrenik, batzuk ez badute ikusi nahi ere, alderdi espainolistek bere “tokitxo” dute gure Goierrin, ez dute inoren laguntzaren beharrik, hortxe daude eta horrela onartu behar da (PSOE+PP= 3.374 botu), eta abstentzioa, beste toki batzutan bezala, oso altua dugu. Ez da batere harritzekoa,

Goierri hauteskunde ondoren

kontutan izaten badugu EUE ez dela aurkeztu.

Hala ere, aurtengo emaitzak aurreko hauteskunde europearrekina alderatzen baditugu (eremu bereko hauteskundeak konparatzea da egokiena), argi eta garbi ikus ditzakegu herri honetan emandako aldaketa batzu; hauteskunde batetik bestera HBk ia-ia 500 botu galtzen ditu eta, ikusirik bere botuemaileen militantismoa, esan daiteke zerbait gertatu dela HBren barnean, badaudela HBren norabidearekin ados ez daudenak eta botua eman beharrean etxean “militante” geratu direla. Badute zer pentsa Goierriko HBko buruzagiek, ikusten denez, eta hemendik kanpo zer esanik ez, jendea nazkatzen ari baita horrenbeste istilu, manifa, pintada eta harrikadaz.

Bestalde, abertzaletasun demokratikoaren panorama argitzen ari da; alde batetik EUEk aukeratua du hauteskundetara gehiago ez aurkezte eta bestetik EAJ-PNV

eta EA arteko lehia, nire us-tetan anai arteko lehia, erabat lehenengoaren alde alderatu da. Aurreko europearretan PNVk EA baino 1.200 botu gutxiago atera bazituen ere, oraingo honetan PNVk EA baino 1.100 botu gehiago atera ditu. Hau duk hau, lau katu eta mutur-joka, horixe omen da gure patua. Bata bestearen aurka, elkargu-neak aurkitu ezinean eta ñabardura bakoitzaren inguruan alderdi politiko berria antolatuz.

Ez dugu erremediorik, abertzaletasun demokratikoak hain beharrezkoa duen ardatza bertan dugu, ez dago asmatzen eta burua nekatzen ibili beharrik, EAJ-PNV dugu ardatza. Ez pentsa planteamendu hau erosotasun eta errazakerian oinarritzen denik, ez jauna, abertzaletasun demokratikoaren ardatza izateak izugarritzko erronka eta ardura suposatzen baitu. Bakoitza berean, barnean gaudenok eskuzabal jokatzu, ideia berriak gureganatzeko irekiak, gizartearen eskaeren aurrean erne egon eta, nola ez, behar haineko autokritika eginaz eta, inguruan dabil-tzanak, ekarpen kritiko baino aberasgarriak eginaz eta zuen proposamenak konplexurik gabe azalduz. Erronka latza baina polita, denon artean egin beharreko lana; geu prest gaude, eta zeu?

Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

880035 **ORDIZI**

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

POL. INDUSTRIAL IBABE
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO

Txandaka

Itsulapikoak eta moda

Ez digu erronka makala bota Sa-sieta Mankomunitateak: zaborra gu-txitu eta ezinbestez sortua berziklatu; dotore plazaratu du (eta ez elegante bakarrik) "Berziklaketa-Gida". Ka-leko itsulapiko zuri-berde-urdin handietan sartutakoak ez du lehena-goko txakur haundi, pezeta eta du-roen ilusioa egiten, baina urte gorria-ren balioa du; "moda" esan dute, baina gaitzerdi. Gutxienik, zakar eta traste baliogabe ustekoak aprobe-txatzea, arlote ibiltzea ez dela bada-kigu.

Arlote galantak, ordea, pentsatu badugu jadanik inoren aurrean txape-la kendu beharrik ez dugula. "Eroski"n irakurri berria dut, Ordi-zian, konparazio baterako, bizilagune-ko 14 Kg. paper bildu badira, Pe-raltan bi halako ere jaso dela. Eta modaren ura neure errotara eraman nahi dudalako, bota behar bestela-koak ere. Goierriko parajerik ederre-nak txaletez bete nahi ditugu; kamino eta eskalestrik oso modernoak, baina urtebetean lepo eginda, inork nahi ez eta autobusez ibili...

Ataungo poeta gazteak kantatuko digu berriro ere McLaren F-1aren 854 zaldien grazia eta ez da egongo, ez itsulapiko ez kajafuerte, beraren sus-pentsio integrala, 48 balbula zilindrikoak eta inyektore infakziala berziklatzeko gauza izango denik.

 Antonio Berasategi

Inkesta

Oporrak hemen ala kanpoan?



Nikolas Garmendia
legorretarra
43 urte, arotza

Aurten bajaran nagoe-nez, ez dut uste oporretan joango naizenik. Agian iraila edo urria aldera, 15 bat egunetarako Gali-ziara joango naiz. Au-rreko urteetan Asturias, Bartzelona edo Galiziara joan izan naiz, eguzkia-ren bila. Hezurretarako oso ona baita.



Maite Zabalo
alegiarra
52 urte, etxekoandrea

Hementxe geldituko naiz herria zaintzen. Ez daukat oporretan kanpo-ra joateko ohiturarik. Hemen ibiltzen gara, eguraldi ona dagoenean, egunpasa Donostia, Orio edo Zarautzera joanez. Noiz behinka mendi al-dera joatea ere gustatzen zait.



Monika Chave
legorretarra
16 urte, ikaslea

Cadizera joaten gara urtero oporretan. Izan ere nire gurasoak hangoak baitira. Normalean 15 bat egun pasatzen ditugu bertan, eguzkia har-tuz eta bero dexente pasatuz.

Oharra: oporrak hartzen ditu GOIERRITARAK irailera arte

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



ZURIKETA

Tailaketa eta estalkirik gabe

- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20


Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN

Ba al dakizu...?

IKURRIÑAK 100 URTE

bete dituela eta, makina bat ospakizun egiten ari dira Euskal Herrian zehar. Bilboko Sabin Etxean hango eta hemengo ikurriñen bildumaren erakusketa egin da. Bertara joan zen itsasondoar "enbajada" bat uztailaren 5ean, 1934tik ondo gordetako Emakume Abertzale Batzaren eta Euzko Gaztediren bi ikurriñak Retolaza jaunari eta besteri entregatzera. Tartean ziren Felipe Barandiaran (orduko abanderatua) eta bere alabak Mari Tere eta Maria Jesus, Maria Lete (bandera-egilea) eta bere familia ("Ibai-Ertz"-eta). Ikurriñen artean ondoen zainduenak Itsasondokoak ziren, aidanez.



Arg.: "Galtzundia" - Richard

IÑAKI ZUBELDIA

IKAZTEGIETARRAK argitaratu berria du Ikaztegieta zoo mundiala jarri dutela iragartzen duen "Ipuin Eroa" liburua. Goierritaz ere ez da ahazten. Iñaki irakaslea zen garai ba-

tean eta besteak beste Ordiziako Ikastolan ibilia, bere Dyane berdearekin ezagutu genuen: orduan idatzi zuen "Euskaldun bat Marten". Elkar argitaletxean hasi zen lanean gero eta guraso modura ere gertutik bizi izan du haurren mundua. Hortik datorkio aidanez haur-literatura egiteko joera.



Arg.: Javi - Foto Sistema

OROITH ABESBATZA.

Ordiziako Oroith Abesbatzak Hungariako Debrecen herrian antolatzen duten Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa prestigiotsuan bigarren eta hirugarren sariak lortu ditu. Errusia, Ukraina, Letonia, Suedia, Finlandia, Japon, Hego Afrika, Estatu Batuak, Polonia, Alemania, Txekoslovakia, Belgika, Frantzia, Irlanda, Errumania eta Mazedoniako abesbatzek hartu zuten parte ordiziarrekin batera. Amalia Ibañez zuzendariaren esanetan, "Oso pozik gaude, abesbatzak orain artean jaso

duen arrakastarik handiena izan baita. Ohore bat da Europako abesbatza handien artean tokitxo bat lortu izana".

GUNE, BASERRITARRREN BILGUNE.

Urretxun ireki berria da Goierri eta Urola Garaiko nekazarien elkarte (GUNE). Tartean Ezkio-Itsaso, Ormaiztegi eta Gabiria-koak daude. Lehen ere nekazal-tresnerien kooperatiba irekia zuten, aintzindariak izan dira horretan Euskadin.

ARALAR, PARKE NATURALA

izendatu eta gero, hurrengo pausua horren gestiogintza eramango duen Patronatua osatzea izango da. EHNE sindikatuak lur-jabeekin eginiko bileran Patronatu horretan parte hartzea erabaki zen. Ordezkaritza beza-la, Eneko Karrera Amezketako baserritar gaztea aukeratu zen.

TELEBISTA - KATE PRIBATUAK ATAUNEN.

Denbora askoko harremanen ondoren, "Retevision", Eusko Jaurilaritza eta Ataungo Udalak lortu duten akordioaren arabera, hiru bat hilabete barru, telebista pribatuak ere ikusteko moduan izango dira Ataunen, Joxe Begiristainen esanetan. Antena eta gainontzeko tramankuluak, telebista publikoenak dauden tokia berean kokatuko dituzte, Muski aldean hain zuzen ere. Azken orduko berri honetaz besterik aurreratu ez dezakegun honetan, norberak bere aldetik konponbidea jartzeko asmotan zebiltzan herritarrentzat behintzat, balioko al du berriak. Bada-kizue, itxoin piskabat.

MIAMI
kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

**Carasa, Cilveti,
Lacort y Cia., S.A.**

Aseguruen Korreduria
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak 88 69 53
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA

LEONARDO ESNAOLA LAZKAOTARRA

Ruandako egoera beltza dela eta hemen izan dugu. Ehundaka milaka dira Burundira ihes egin beharrean suertatu diren ruandarrak eta errefuxiatu hauei laguntzera abiatu da berriro lazkaotar josulaguna.

JESUS LARRAÑAGA

"GOIERRI", politikari abertzale eta "gorri" urretxuarraren historia aurkeztu berri du bere azken liburuan Jose Antonio Egidok. Egidok adierazi duenez, Ordiziako Batzokian EAJn afiliatu eta gero bere burua marxista porrokatutzat jo zuena izan da Gerra Zibileko heroi herrikoien eta karismatikoen. GOIERRITARRAK bere 12. zenbakian eman zuen "Goierrri"ren biografia labur bat eta gero "Beasaingo Paperak"etan ere aterea zen.

LAZKAO TXIKIREN

BERTSOAK kaleratu ditu Sendoa argitaletxeak. Bi aletan banatuta datoz Aita Zavalak zuzendutako lana eta bere bizitzako gertakizun nagusienak ere biltzen ditu obra horrek, baita ipuin, txiste, ateraldi eta gertakizun ezagunenak ere. Beste bertsolariekin egindako saioen berri ere ematen dute liburuek. "Irriz eta malkoz" obrak, bertsoen doinuak, argazki ugari e.a. ere badakartza. Dotore aurkeztuko dutela dirudi.



Arg.: Jontxu

JOSUNE BEREZIARTU

beasaindar eskalatzailea Euskadiko Kopako txapeldun dugu bigarren. Bergaran "superfinalean" jokatu aurretik Beatriz Jimenez-ekin berdindua zegoen Josune. Bergaran ere berdindurik gelditu ziren, baina, Josunek postueri dagokionez puntuazio hobea zuenez, berari eman diote txapela. Espainiako Kopako lehen frogara ere irabazi zuen Gasteizen beasaindarrak.

ARRIKUTZ - ANTZIZAR

triatloi taldeko Aitor Escalante, Etor Mendia eta Jose Manuel Rivasek

Nizako Triatloiean parte hartu dute. 4 km igerian, 120 km txirrinduz eta 30 km korrikan egin behar izan zituzten. Escalante 225. gelditu zen, Mendia 230. eta Rivas 427. Datorren abuztuaren 27an, Holandako Almere herrian egingo den "Ironman" frogara gogorrean izateko asmoa dute.

AITOR GARMENDIA

txirrindularia azken bi urteetan Tourrean Migel Indurainen ondoan izan bada ere, aurtengoan etxean gelditu da. "Egunkarian" egindako elkarrizketan adierazi duenez, "pena handia ematen dit Tourrean ez izateak. Hura ezagutu eta gero, txirrindulari ororen ilusioa Tourrean egotea da. Baina aurrean ez zaizkit gauzak nahi bezala ateratu, adibidez Espainiako Itzulian ez nintzen ondo ibili, eta gainera taldean horrenbeste izanik, banekien oso zaila nuela bertan izatea".

"EGUN BAT ZERAINEN"

Kanpaina bere emaitzak ematen ari da. 93an baino lehentxeago hasi eta 94ko ekaina bitartean, 5.968 lagun pasa ziren bisita gidatuetan aste barruan, Zeraindik. Asteburuko bisitariak 4.000 inguru izan dira. Turismoa egiteko nahiz egunpasa didaktikoan aritzeko zer ikusi eta zer ikasi ugari eskein diezaieke herri horrek euskaltegi, eskola eta edozein talderi ere.



ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

SIGLO XX

TABERNA

JATETXEA

☎ 88 10 96
Elkano, 6

ORDIZIA

MASAJISTA DIPLOMATUA

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52
ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Goierriko ermittak (I)

Ehundik gora ermitta edo baseliza eta kapera ditu Goierrik. Amabirjina ezberdinei izan zaien debozioa ez da nolanahikoa izan eta jaiera etengabeak egin izan zaizkie urte osoan zehar.

Erromeritik erromerira ibiltzeko moduan ginateke. Sustrai galantak ditu kristau fede eta sinismenak gure eskualdean eta bi artikulutan zehar emango dugu Goierriko ermitten berri.



Kizkitzako Ama

Itsasoko mendi-punttan dagoen Kizkitzako Amabirjinarenganako zaletasuna ez da gaurkoa. Gaur gurea dena baino sutuagoa omen zen lehenago. Bertan bada liburu bat "Cofradia de Santo Rosario" izenburuduna, Itsasoko kontzejuko San Bartolome eliz-parrokikoa dela aitortzen duena, 1614koa. Sozio guztien izen-abizenen zerrenda dakar: 419 gizon-emakume. "Ichasolegorra"n, 1632ko martxoak 21aren data dakar. Harritzekoa da hain herri txikian horrenbeste jende egotea Elkartea horretan apuntatuta. Ai denean, garai hartan Matxinbentara, Mandubira eta Astigarretara zabaltzen omen zen Itsaso. Kristautasunak indar handia

hartuko zuen orduz geroztik inguruko herri horietan Kofradi horri esker. Bestela nola izan zitekeen Aita Santuak berak go-goan hartzea? Ez hori bakarrik, baizik eta Clemente XI eta XIII-ak

"Breve"ak, dokumentu batzuk idatzi baitzizkien "Icha-solegorra, Gabiria, Esquioga, Hormaistegui, Segura, Motilua", e.a.-eko Errosario Santuaren elkarteko apaiz eta herritarrei 1705ean eta 1767an.

Liburuek diotenez, Kizkitzako Amabirjinaren Elkartea Urrestilla, Ezkio, Astigarreta, Zumarraga eta Arriarango herrietara zabaldu zen. Txukun asko azaltzen dira bateko eta besteko kristauen izen-abizenen zerrendak, urtez-urte osatuak jende berrirekin. Geroztik, beti izandu ziren azken gizaldi horietan Itsason kristau Amabirjinaren baseliza mendi-puntta hartan zutik eta txukun egon zedin arduratu zirenak, gora-behera askorekin. 1825ean eginiko ermitta berrriaren kostua 1.342 pezetakoa izan zen. Diru hau Itsasoko herrian bildu zen, bai dirutan, bai garitan. Laguntza eman zutenak, beren izen-abizenak argi daude paperetan, 61 izan ziren. Geroztik ere berritua izan zen eta 1934an Ordiziako Unanue arkitektoak prestatu zuen proiektu berria. 59an, abenduak 28an (Iñuxente egunean), bertako serora sua egiten hasi omen zen eguraldi hotza zelako, eta haize haundia izan nonbait eta erre zen ermitta. 64an berritu zuten gaur ikusten dugun eran.

Larraizko Andra Mari

Larraizko Andra Mariren irudikera originala medio (bastidore jantzia eta dontzeila-peluka du), 1630-50az geroztiko zaletasuna onartu beharko zaio.



Inork ez daki noiz altxa zuten ermitta, baina 1669rako inguru guztiotan bereganako debozio sutsua zen. Larraitz bezalako leku batean altxatua izateko (bere haritzen pean eta itturri-ondoan), logikoena da artzaiek altxatuko zutela lehen santutxoa eta baseliza gero. Izan ere pasabide hori beraiek erabiltzen baitzuten maiatzaldera Enirioko lareetara igo eta San Martinetarako jeisteko kostaldekoak. Baina erromeriak ere hasi eta bukaerako dantzak "degeneratzen" ari zirela eta, Juan Garmendia erretoreak, alkatearen eta gainerako apaizen oneritziarekin, errieta egin zien parrokianoei 1683an. Eta, nola ez zen lekua hura emakumea bakarrik han bizitzeko, Larraizkoa ermitañoek zaindu zuten XIX menderarte; serora bat izan zen, ordea, gutxienez: Maria Manuela Astigarraga, Juan Frantzisko Zubeldiaren emaztea. Gure egunetan, pare bat himnu baditu gutxienez, Garbizu eta Ibarbiak konposatuak. Bertako erretoreak 1970ean handitu zuen baseliza eta Mariaren irudi gotiko bat iraunarazteko, Goiazko dorrean abandonaturik aurkitutakoa erosi eta Larraizkoan jarri zuen. Han daude biak orain: Larraizko berezkoa (XVII. mendekoa) eta berria (XIV.ekoa). Ganaduak eta artaldeak sendatzeko irudi mirarigilea omen.

J.M.A. (Jose Inazio Zugasti, Luis Murugarren eta Jose Mari Leteren testuetaz baliatuz)

A ze pareta, aza eta barea!

"Orbela" tabernan Sabinorekin hizketan ari ginela, Aldabe legorretar ordiziartua etorri, eta aza-koloreko dirupapera eman zion Sabinori: "*Tori barearena*", esan zion milakoa luzatuz. Izan ere, aurten bigarren urtez errifak atera dituzte Ordiziako Jaietako "Barearen Hileta" zirikatzaileak sortzen dituen gastuak zurtzeko. Iaz errifaren lehendabiziko zenbakia Argiñano famatuari bidali zioten.

Orain beste talde baten esku badago ere, Sabino Zeberio eta Jorge Manrique izan ziren emankizun honen sortzaileak. Nola sortu zen ez daki ia Sabinok, baina arrakasta izugarrikoa lortu du, nahiz beasaindar bat baino gehiago oso



Arg.: Sabino



Arg.: Sabino

haserre dabilen hileta-kontu honekin: "*Baina beste batzuek 'katxondeo' hutssez hartu dute*", esan zigun Sabinok. Polemikia denik ezin ukatu. Ordiziar petoa eta beteranoa den Juan Migel Mujikak esan digunez, Beasain-Ordizia ar-

teko "pikea" orain baino handiagoa zen garai batean. "*Aurtengoa ordea, zenbait gauza ikusi ditut, errifak, e.a., eta neri gehiegizkoa iruditzen zait*".

Errifaren saria 20.000 pezetako afarria eta bareari sua emateko aukera. Han izango da seguru asko Sabino bera ere argazkiren bat ateratzen. Aurten 10 urte beteko ditu ordiziar honek festetako argazkiak egiten. "*Urtero 300 bat egiten ditut*", bota zigun zumar ihartugabe honek.



ORDIZIAKO UDALA

Ordiziar guztiei eta egun horietan bisitan datozkigunei eta hainbat arazo direla eta gurekin egoterik ez dutenei festa alai eta zoriontsuak opa dizkiet.

Alkateak



BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4
Tfona: 880406
ORDIZIA

Jaien egitaraua

Uztailak 23, larunbata

Goizeko 10etatik hasita: Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa adinka Majori Polikiroldegian, OKE-Igeriketarak antolaturik. **16,30:** Jm. Barandiaran Plazan koadrilen arteko Euskal Kiro-lak. **17,00:** Puenting herrikoia Beti-Alain, "Pausogaizto" antolaturik. Aipatutako Igeriketa Txapelketa Majorin. **18,00:** Barrena Kultur Etxean Irungo Jubilatuetxeko antzerki taldearen eta Hondarribiako Kasino Zaharreko musikarien aktuazioa, Jubilatu Elkar-teak antolaturik. **22,30:** "Erreka" sei-kotearen musika saioa (bolero, salsa, e.a.) Beti-Alain "Ordizian"ek antola-turik: kantineren aurkezpena eta hain-bat zozketa...



Arg.: Dioni

Uztailak 24, igandea

10,00etatik hasita: Adinaren ara-berako Gipuzkoako Igeriketa Txapel-keta Majorin, OKeren eskutik. **12,00:** Kanpai bueltakoak, suziri eta bonba botatzea, Jaien hasiera ofiziala. Bu-ruhandi eta erraldoien alardea, txistu eta trikitixa. **17,00:** Igeriketa Txapel-ketaren jarraipena. **18,00:** Buruhandi eta erraldoien irteera Ordiziako Txis-tulariekin batera. **19,30:** Koskola Txaranga kalerik kale. **21,30:** Ohizko dan-borradaren irteera. Bukaeran Gurrutxaga Maisuaren Ordiziako Martxa joko da Enparantza Nagusian. Aurretik

Fermin Gonzalez "Kifi"ri egingo dio omenaldi Ordiziako Herriak. Ondoren Yerri Jazz Band-aren musika saioa. **23,30:** Boxing Ziklo Klubak antolatu-riko Boxeo Jaialdi Handia. **24,00:** Sta. Ana ikastetxean gazteek antolatutako rock jaialdia, "Potrotaino" eta "Signa-culun Virginatis"ekin.

Uztailak 25, astelehena

7,30: Laguntasuna Errondailaren goiz-eresia. **9,00:** Nazioarteko LXXI. Villafranca Txirrindu-Probaren hasera profesionalentzako, Txapel Gorri Ki-rol Elkartearen eskutik. **13,30:** Proba-

ren amaiera. "Voces Navarras" taldeak nafar jota-saioa eskeiniko du Enpa-rantza Nagusian. **18,30:** Larruzko pi-lotaz pala-partiduak Pilotalekuan. Magia saioa kalez-kale Luis Boyano magoaren eskutik. **19,00:** Koskola Txaranga kalez kale. **21,00:** Beti Argi Bandarekin kalejira aparta. **22,30:** Domingo Unanue Plazan Jugoslavia-ohieko "Abrasevic" Dantza-konpai-niaren saioa. Irratizaleen Elkartea la-guntzaile. **23,00tik goizaldera:** Hura-can Orquesta eta Koskola Txaranga Enparantzan. Izadi Taldea eta mozo-rro-dantzaldia Beti-Alaien; Karaoke herrikoia tartean.

Unanue

GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA

BEGUÉ REDONDO
JANARIDENDA

Berezitasuna janari eta fruitutan

Urdaneta 39 ORDIZIA
Nafarroa Hibilbidea 27 BEASAIN

Kiska
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

94ko Santanak

Uztailak 26, asteartea (Santana Eguna)

6,00: Ohizko goizaldeko danborrada. Ibilbidea: Bustuntza-Gudarien Etorb.-Kale Nagusia-Urdaneta-Malkasko-Urdaneta-Sta. Maria-Nagusia-Plaza. Ondoren txokolatejana Arboledan. Ondoren Ordiziako Txistulariek eta Triklariak alaituriko goizeresia, herriko zenbait tokitatik abiatuta. **9,00:** Irungo Udal Musika Bandaren kalejira. **11,00:** Meza Nagusia Elizan Udalbatzarrak parte hartuz, Santa Ana Abesbatzarekin. **13,00:** Irungo Udal Musika Bandaren kontzertua Enparantza Nagusian. **17,00etatik 20,30ra:** JmBarandiaran Plazan Eroskiren 25. urtebetetzea ospatzeko antolatutako haur-jolasak: trapezioa, funambulismoa, malabarismoa... **18,00:** Jai-Alai Elkarteak antolatutako profesionalen arteko polota partidua eskuz Beti-Alaien. **19,00:** Alde Zaharrean



Arg.: Dioni

“Trapu Zaharra”ren kale-antzerkia. “Gau Pasa” Txaranga kalerik kale. **21,00:** Kalejira Beti-Argi Bandarekin. **21,30:** Bertso-afaria Gaztetxean. **10,30:** D.Unanue-n Buenos Aireseko Arte Folkloriko Baletaren dantza-

saioa. **11,30etatik goizaldera:** Aquarium Orkesta eta Gau Pasa Txaranga Enparantzan. Ostadar Taldea Beti-Alain.

Uztailak 27, asteazkena (Koadrilen Eguna)

9,00: Goiz-eresia. **11,00:** Santanazaleen meza Parrokiako Elizan. **12,00:** Santanazaleen ohizko Esku-Dantza Plaza Nagusian (Esku-Dantza hau 1509tik ospatzen da). **12,30:** Koadrilen irteera. **21,00:** Kalejira Beti Argirekin. **23,30tik goizaldera:** Enparantzan Iruña Band Orkesta eta Oria Txaranga; Drindots Beti-Alain; tartean Karaoke herrikoia.

Erakusketak Festa egunetan Barreran: X. Ortazar Argazki Lehiaketan aukeratutako lanak eta La Habanako Tailer Grafiko Esperimentala.

ALKAIAGA TABERNA

Nagusi berriekin

- Pintxo eta ogitartekoak
- Eguneroko bazkari eta afariak. Menua
- Asteburuetan menu bereziak
- Haragi errean berezitasuna

Urdaneta, 18

☎ 88 96 18

ORDIZIA



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnua.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

ORBELATABERNA

Pintxo bereziak!

☎ 88 28 83
Plaza Nagusia

ORDIZIA



JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA
Azken teknika
eta nobedadeak

*Solariuma
eta
Lurrindegia*

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

Santana Jaizaleen iragana eta oraina

Garai batekoak bai apartak!

Juan Migel Mujika Larraza ordiziar zahar-saridunak eman dizkigu garai bateko Ordiziako Jaien berri. Bete-be-tean bizi zituzten munduko jairik one-nak.

1934 urteko programa batekin etorri zaigu, berak 10 urte zituenekoa. "Festa-bezperan, 24ean, bertako familia pobreeni laguntzak eta arrazioak eskeintzen zitkien herriak, orain dela urte asko ez arte. Alde handiegirik ere ez da programan orokorrean: karrera oso goiz izaten zen, pelota partiduak baziren, orduko 'izarrak' Santiago eta Santanetan; Beasaingo Bandak arratsaldeko 5etatik 8ak bitarte joko zuen. Gaur baino goizago egiten ziren festetako ekintzak, gure gazte-denboran. Eta berbenetara joaten zena, beno...! Gero ez-kondu ginen eta gauzak aldatu ziren, heldutakoan hasi ginen berbenetara joaten", gogoratzen du "Larratxa"nekoak.

"Orain nik ez dakit nolakoak diren festak, bizi egin behar dira, barruan egon. Gazte-jendea Etxezarreta eta Santamaria bi kaleotan ibiltzen da eta berbenara ere ez omen dira joaten, diotenez. Lehenago apartekoagoak, herri-koiagoak ziren jaiak. Etxekoagoak. Gure etxera, Zaldibia, Arama, Bitori eta Oñatiko lehengusuak etortzen ziren



Arg.: Dioni

Santana egunean bazkaltzera. Koadrila juntatzen ginen, horrek bazuen mamia. Gauza haundia zen."

Gaur ez bezalako jaiak ziren Mujikaren ustez, nostalgiaz gogoratzen dira bere koadrilan ere. "Ezin liteke esan hobeak edo txarragoak direnik oraingoak: desberdinak dira. Gaur beti dago festaren bat, orduan bi egun. Ez zen automobilik, tren espezialak etorri eta joaten ziren leporaino, autobusen bat Segura-Zegamatik. Egun, berriz, jendea nolanahi mogitzen da". Beasain eta Tolosa-

ko bandez gain, Burgosko Akademia Militarreko Banda etortzen zen: "Gauza haundia izaten zen, orduan ez zen geroz bezala horren kontrakorik, berdin zen. Festa guztietarako etortzen ziren, Ospitalean lo egiten zuten eta Juanito Garmendiaren 'Aurrera' tabernan otorduak". Errepetizioak jaiak ere egiten ziren, urte guztian ez zen ia besterik.

Baina garai haiek joan ziren eta Danborradak, txirrindu karrerak, Gurrutxagaren Ordiziako Martxa e.a.-ek hartu dute indarra gerora. "Beasaingo jaiak baino garrantzia handiagoa zuten Ordiziakoak guretzat, ia Tolosako Karnabalen pareko. Topera bizi genituen. Festetan bakarrik genuen libre taberna eta kafeetan sartzea. Jende askoz gutxiago ginen eta kontuz ibili beharra zegoen orduko 'sereno' edo udaltzainekin. Gaur egun 'ganberro' eta parrandero gehiago dago". Santaneroen tradizioa, Villafranca Txirindulari Proba, Danborrada, Irungo Bandari egiten zaion ongietorria, horiek ematen diote kolorea eta izaera jaiari, horiek gabe asko jeitsiko lirateke. Danborrada matutina gauza berria da, gazteena...

Festa berriak

Aurtengo festa-egitarauan berrikuntzak direla eta Jesus Mari Lariz, EAko zinegotzia eta Festa Batzordeko kideak eman dizkigu horien berri.



Zure edertasuna zaintzen dugu!

Solariuma
Depilazioa
Garbiketak
Azkazal postizoak
Makilaia
Manikurak

Aloska

EDERGINTZA eta USAINDEGIA

Domingo Unanue plaza, 2
Tfona: 88 24 10 ORDIZIA

KOIOTE

T A B E R N A
Zaldizurreta BEASAIN
Etxezarreta k. ORDIZIA

Arkupe

Tapizteria

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai ohialak
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA

☎ 88 00 84

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

Ordizia ezagutuz

"Egia esan, geroz eta zailagoa da berrikuntzak sartzea. Batzordean dagoen jendeagatik, orain arte burututako gauzak nekez alda bait daitezke: jendea gustora geratzen da, horregatik arazoak izaten ditugu aldaketak sartzerakoan".

Dozena inguru nobedade badaude: Gipuzkoako Igeriketa txapelketa; Erretiratuak Elkarteak ekarritako antzerki eta musika taldeak; "Ordizian"ek "Erreka" seikotearekin antolatutako Berbena Pilotalekuan; Danborrada amaitu ondoren beti egon izan den Txarangaren orde, jazz talde bat izango dugu; orain 4 urte Donostiako Jaialditik beste jazz talde bat ekarri zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen; kalez-kaleko eta bestelako magia saioa, iazko Erraldioen Alardearen orde; "Batzordeko jende gazteenek eskatuta", Berbenen barnean eta ordu desberdinetan, Karaokea frontoian; Goizeresiak Ordiziako lau puntu desberdinetatik irtengo dira aurtan; "Eroski"k antolatutako haur-jolasak; Kaleko teatroa: "Behin edo behin ekarri izan dugu Trapu Zaharra bertara, baina kale horietan dabilen hoberenetakoa delakoan, dakarkigu berriro".

Besterik ere bada, orde: 25-26 egunetarako, bi dantza talde ekarri dira, Jugoslavia ohitik eta Argentinatik. Programan azaltzen ez bada ere, "eta oraindik orduak zehaztu gabe badaude ere, bi taldeok kaleetan zehar ibiliko dira arratsalde. Orain arte atzeritik ekarri diren taldeek oso harrera ona eta arrakasta galanta izan dute; horren lekuko ditugu Euskal Jaietan eta Ardoaren Ferian ekarritako taldeak". Ordiziako plazak gainezka egon ohi dira batipat ekialdeko taldeak hemen agertzean.

Egitaraua osatzerakoan erabateko adostasuna egon da Batzordean. Hori bai, lanak eman ditu eta piskanaka egin da, "azkenean, eskuartearen dugun egitaraua bezalako bat osatzea zaila bai-



Arg.: Dioni

ta", dio beti bezala batetik bestera buru-belarri ibiltzen den Jesus Marik. Onerako balantze bat egiten digu, "iaz hainbat ekintza edo gehiago aurki bat ditza-kegu, aurrekontu berean mantenduz. Egun osoa eta adin guztiak kontutan hartzen ditu egitarauak. Betiko moduan, jendeak parte hartuko duen uste osoa du, danborrada segurua da, hiruzpalau karrroza izango dira, Herri Kirolak ere bai." Larizen ustez, parte-hartze bikaina nabaria da.

"Ordizian", orain

"Ordizian" Merkatarien Elkartea berritzeko lanetan dabilta Bitor Perez Eguren eta Ana Karrera. Buru belarri aritu dira azken egunotan larunbateko Beti-Alaiko Berbena prestatuz. "Gure asmo nagusia herriari bizi berri bat ematea da eta faktore garrantzitsua da Jaiak berbiziartztea. Garai bateko festetan itzala zuten zenbait ekintza ahaztuxeak, desfasatuak gelditu ziren, hau eta hura zela medio. Horiek berriro nahi izan ditugu, onarpen jator bat izan bait dezakete orain berriro", esaten digu "Ordizian"eko dinamizatzailea den Bitorrek.

Hortik eta hara kontratatatu da "Erreka" seikotea, musika jakin bat, salsa, bole-roak, aide kubarrak... "Kantineren aurkezpena, bere garaian egiteari utzi zitzaion, baina festa giro polit bat izan dezakeela kontsideratzen dugu". Guzti hau aurrera eramateko komertzioaren kolektibo guztia izugarri mogiarazi dute, bai eta ikusi ere onarpen zabala jaso duela. Gehiegi tiratu beharrik ere ez dute izan klase eta adin guztietako jendea busti ahal izateko. Berbenan mahaiak jarriko dira, horiek montatu, zerbitzari-taldea antolatu, lan haundiak hartu dituzte.

Ordizia indarberritzeko, ostalari eta merkatariez gain, zerbitzu guztiak baitaratu nahi dituzte: ileapaindegia, aseguratzaileak, argazkigileak, e.a. Jaietako ekintza horrekin hasi eta, oinarritzko ideatik abiatuz, gauzak piskanaka lortzen hasiko diren segurantziaekin dau-de. Dagoeneko 80 kide ditu Elkarteak eta laister 120ra iritsiko dira. Seguru da Ordizia oraingoan.

Jon Mikel Arano, Jon Imanol Iturrioz eta Aitor Calvillo

OIANGU

TABERNA

Euskalerria z/g
Tfona: 88 30 03

Ordizia



JOSUNE

ESTETIKA ZENTRUA

Prolifting tratamendua
Erabateko depilazio progresiboa, minik gabe

Eguerditan ere zabalik

J. M. Barandiaran Plaza, 3 - 88 28 88 ORDIZIA



Mendi Nekazaritza eta Goierriko baserritarrak

80 inguruan Europar Batasunean sartu behar genuela eta bagenituen geure zalantzak. Garai hartan EBaren oinarri garrantzitsuena nekazal politika izan zen. Nekazarien konpetitibitatea eta egokitasuna bultzatzen zen, mundu guztian merkatutzearekin batera. "FEOGA orientacion" eta "FEOGA garantia" izan ziren erabili ziren tresnak: alde batetik laguntzak joaten ziren inbertsioak egiteko, prestatzeko, eta bestetik salneurriak mantentzeko sobrante guztiak erosi eta pilatzen ziren noizbaiten saltzeko. Politika hau nekazal herri haundiek bultzatu zuten eta interes batzuk egon ziren atzean. Politika honekin gertatu zen, garai batean herri batzuetatik bestera edo baserri haundietatik txikitara diferentziak bazeuden, haundiagotu egin zirela eta zailtasunak zituzten baserritarrak edo lurraldeak utzi egiten zuela bere lana eta uko egiten ziola baserrigintzari.

Une horretan Europako politikoak neurriak hartzen hasten dira nekazal ikuspegi zabalagoekin, Mendi Nekazaritzaz hasten dira hizketan, erreflesio batzuen ondoren. Baserri txiki eta inguru zailen egoerari aurre egingo dion lege bat onartzen dute estatu guztiei aurkezteko. Estatu espainolean 82an ateratzen Mendi Nekazaritzako Legea eta 84an arau legala erregularizatzen zuena. Hor, aipagarriena zera da: batetik, komunitate autonomo bakoitzak bereganatu eta aplikatu behar duela, ardatz nagusia (%20ko aldapa duen nekazal lurraldea, 400 m.ko diferentzia altueran, nekazal-bokazio dexentekoa edukitzea) errespetatuz. Euskal Auto-



nomi Elkartean herri gehienak sartzen dira hor eta 86an agertzen da lege hori. Aipatutako puntuak onartzen dira eta garapen bat ematen zaie: MN elkarreak sortzen dira, nekazal politika bateratua eta garapen integrala bultzatu behar dugula elkarte horietatik. Hau da, administrazioa bailaretara hurbildu eta bailaratan garatu nekazal aktibitatea.

Goierri, MNko prozesua 88an hasi zen. Sektorean zeuden elkarte guztiak gehi bertako 21 udal-ordezkariek bildu eta sortu zen "Goimen". Eskualdeko nekazarien behar, kezkak, helburuak e.a. jakiteko plataforma hoberik ez zegoen eta ez dago. Elkartean nekazal-ordezkariek dute erabakiak hartzeko gehiengo. Urtero iristen dira proiektuak udaletxe eta nekazal-elkarteetatik; horiek dira bideak. Guk lehentasun batzuk jarriak ditugu eta era horretan joaten dira aurrera edo atzera proiektuak. Bailarako nekazal gidaritza du-

gun neurrian garapen integrala dugu helburu, bertan ere bai baitaude aldeak herri, auzo eta baserri batetik bestera. Diferentzi horiek txikituko dituzten ideia edo proiektuak hartzen ditugu kontutan. Nekazarien bizitzan garrantzi handiena bere ekonomia, eguneroko ogia ateratzea izan arren, esan ez dugula produktibitatea bazarrik bultzatzen, baserritarrak produktu naturalak eta kalitatezkoak produzitze bidean eta harian jarri behar ditugu, era berean inguru zain-tzaile eta herritarren astialdiatarako zerbitzuak eskainiz. Gure asmoa, gaurko errealitateari erantzun, etorkizuna ahaztu gabe.

Elkartean aurkeztutako proiektuak gure errealitatea isladatzen dute, nabaria izan da sortuz geroztik onartu diren proiektuak ikusita. Gure helburua horiei erantzun bat ematea izan da eta horrela joan dira dirulaguntzak, baina ez ditugu baztertzen, bultzatu baizik georari erantzungo dioten proiektuak, nahiz eta hauek orain zailak izan ulertzen. Emaizak espero ditugu. Bukatzeko, lerro hauek izan daitezela herritarrek eta baserritarrek hobeto jakin dezaten zer garen, non gauden eta zer egiten dugun. Aurrera begira, baserritarrei gehiago bustitzeko, euren interesak defenditzeko eskatzen diegu, inork kanpotik ez digu ezer oparituko eta.

 Jose Anjel Lizarraga
("Goimen"eko Presidentea)



GOIATGI
OKINDEGIA
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737

- ♦ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Irakurketarako gida

Kultur Batzordeak bultzaturik eta Gipuzkoako 22 liburutegik elkarlanean, uda honetan irakur litezkeen liburuak datozen gida edo gomendio orria kaleratu da, nahi duena baliatu dadin. 4 mailatan banatu dira liburuak: 5 urte artekoentzat, 5etik 12ra artekoentzat eta gazte eta helduentzat. "Consumatum est" edo "La pasión turca" eta beste hainbat nobedade aurki daitezke zerrendan. 6.500 liburu osatzen dute Zaldibiko udal liburutegia, kontsulta liburuak bertan miatu eta besteak etxera eramanez daitezkeelarik. Bestalde, oso erraz eta eskueran daude liburuak, liburutegia informatizaturik baitago. Beraz, ahal den probetxurik onena ateratzea gure esku egongo da.

Pelikula kanpo librean

Kultur Batzordearen ekimenari esker, hilaren 29an, ostirala, pelikula bat emango da herriko frontoian, gaueko 10,30etan. "Las armas de la mujer" da pelikularen titulua.



Iker Sukia, "Sevilla Atletico"ra

Iker Sukia Lizarraldeko, 20 urteko mutil zaldibitarra, atezain postuan jokatzen du futboleko. Realean hiruzpalau urtez jardun ondoren, iazko den-

boraldia "Sevilla Atletico" taldean eman du, proban. Berri pozgarriak dira orain handik Ikerrentzat: urte osorako kontratua egin diote. "Sevilla atletico" ekipoa, 2. dibisioko B kategoriako 4. taldean dago. Ekipo honek bi portero daukatzka; Jaime Ferrer 22 urteko kataluniarra da bestea. "Titular izan nadin gogor lan egin beharko dut, baina itxaropentsu nago" adierazi zigun Ikerrek. Hain zuzen, egunen batean primerako ekipoa jokatzea da Sukiaren ilusioa eta nahikundea. Beste gaitontzean Ikerrek ez du izan inolako problemarik hango bizimodura moldatzeko: eguraldi argia, jende alai eta giro ona omen ditu lagun. Beraz, futboleko jokatu eta "Soinu eta Irudia" alorreko ikasketak egiten hantxe jarraituko du.

 **Rufino Iraola**



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN




KUKO
Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g **88 28 93**
ORMAIZTEGI



Tfnoa: 885500 **ORDIZIA**

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfnoa: 88 77 90 Faxa: 88 82 67
Mallotz- 25. Pab. **ORDIZIA**

Gainean dira Andra-Mariak

Laster izango ditugu herriko festak Itsasondon, urteroko ohiturari jarraituz, Andra Maritan. Dakizue-nez, abuztuaren 15a izaten da Andra-Mari eguna, eta data honen bueltan antolatzen ditugu itsasondotarrok herriko festak. Egun nagusiaren bezperan ekingo diegu jaiei, 14an, alegia. Amaitu, berriz, abuztuak 16 egun dituenean. Azken urteetako bigarren jarraituz, izango da azken orduan sor daitezkeen garabeherak oztopatzen ez badute behintzat, hamaitaketa izango da herritar guztiontzat, Udaletxe aurreko plazan. Sabela pixka bat bete ondoren eta giroan gehixeago sartzeko, bertsolari hiru-kote bat: Joxe Agirre, Jokin Soroza-bal eta Xabier Zeberio itsasondotarra.



Arratsaldean berriz, herriko haurrek txirrindularitzan duten abilitadea erakutsi ahal izango dute. Indurainen markak hobetu ahal izango dituzte urteroko krono igoeran, 6.30ak aldera, dantzarien txanda etorriko da. Eta ondoren, herri afaria. Musika trikitilarien eskutik iritsiko zaigu.

Andra Mari egunean Meza nagusiaren ostean Toka txapelketa izango

da. Arratsaldean 6.30etan pelota partiduak: pelotarien izenik ez dugu aurreratuko, sorpresa da eta. Erromerian Joselu anaien esku utziko dugu animazioa. Gau honetan mozorroen lehiaketa izango da. Aurten irabazten duen taldeak afaria bereganatuko du sari gisara.

Azken egunean aurten ere Altzagarateko igoerak ez digu hutsik egingo. Arratsaldean herri kirolen txanda etorriko da. Ondoren patata tortila

txapelketa eta erromeria Iparragirre anai-arrebeekin. Arratsalde osoan zehar haurrek parkeaz gozatu ahal izango dute.

Badakizue, bada, abuztuaren 14, 15 et 16an nora joan jakin gabe bazabiltzate, Itsasondok aukera behintzat eskaintzen dizue. Hemen ikusiko dugu elkar.

 **Arantxa Arza**



ITSASONDOKO UDALA
(GIPUZKOA)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



ORDIZIA



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**

**TAPIZ ETA GAINETADURA
TAILERRA**

B i O K, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

Hiltegia eraberritzeko lanak hastear

Hiltegia eraberritzeko proiektua aldatu egin behar izan du Udalak. Hasiara batean, Eskola Tailerrak eraberritu behar zuen hiltetgia, baina langile espezializaturik ez dagoenez eta tresneria berezia behar denez, hiltetiaren lehen fasea (eraikuntzaren egitura) J. Aranburu Eraikuntzak egitea erabaki du Udaleko Gobernu batzordeak. Gai nontzekoa, Eskola Tailerraren esku geldituko da. Dena den, J. Aranburu enpresak, langabezian dauden hainbat gazte hartuko ditu lehen fase honetarako, Beasaingo Udaleko aparajadoreak baieztatu digunez. 30 milioi pezetako aurrekontua du.

Datozen egunetan hasiko dituzte lanak, eta hiruzpalau hilabetetan bukatua egotea espero du aparajedaroak. Eskualde mailako Inem-en bulegoak eta Arte Plastikoen Zentrua kokatuko da bertan. J. Aranburu Eraikuntzak da Usurbe zinea egiten ari den enpresa.

Akordeoi Orkestra Eskoziara

Beasaingo Akordeoi Orkestrak lau kontzertu eskainiko ditu Eskozian abuztuaren 3tik 12ra bitartean. Oporralditxo pasatzearekin batera, euskal kultura zabaltzea dute helburu akordeoilari gazteek. Euskal musika, eta betiko musika klasikoa eta jazza joko dute bertan.



Akordeoi Orkestrak 4 kontzertu eskainiko ditu Eskozian

Arg.: Fotoetxe

Orain 13 bat urte sortu zen Akordeoi Orkestra. Harrez gero hainbat eta hainbat kontzertu eskaini dituzte bai Euskal Herrian, bai atzerrian. 22 lagunek osatzen dute Orkestra. Bi urtean behin, gutxi gora-behera, atzerrira joaten dira kontzertuak eskaini eta egun bikainak pasatuz. Polonian, Italian, Frantzian, Ingalaterran, Suitzan izan dira jada. Eskoziaren txanda da oraingoa. Kontuz whisky-arekin eta ondo pasa!

Jubilatuak festatik-festara

Herriko jubilatuak ez daude geldi egoteko. Iruñean San Ferminetan izan ziren hilaren 12an. Nahiko dantza eta parranda egin zuten, zezenengandik urruti badapezpada ere. 28an berriz, Urbanara joateko asmoa dute. Azken urteotako ohiturari jarraituz, egunpasa, erromeria izango dute Urbanan.

Loinaz Agirre

MEKABIZKOR



BEASAIN

Bizkor eta errez mekanografia ikasteko metodoa
San Inazio, 15 - 1. ☎ 16 15 53



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean
Tfona eta Faxe: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea, 1. BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxe: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

DE LA CUESTA

Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

“Idiazabal Gazta” Idiazabalgoa ote?

Idiazabal “gaztai herria” denik ezin ukatu, baina “Idiazabal Gazta” izenarekin saltzen diren gaztai guztiak ez dira hemen produzitutakoak. Geroz eta artzai gutxiago dago eta daudenak ere ez dute guztiek gaztarik egiten. Idiazabalek duen “fama” hori nolabait aprobetxatu behar zela eta Udalak deialdi berezi bat luzatu zuen gaztaren inguruan suspertze- proiektu bat egiteko.

Maitane eta Gurutze izan ziren aukeratuak eta ekainean amaitu zuten orain dela sei hilabete hasi zuten lana. Laburtuz, Iparraldeko artzaiekin egon dira, Suitzan ere bai, datu mordoa dute; “Artzai Gazta”, “Idiazabal Jatorri Izena” eta balizko “Gaztaren Museoa” Idiazabalen kokatuko direla aurreratua digute. Hurrengo alean emango dugu guzti honen berri.

“Joxpi” zaurituaren alde

Denok dakigun bezala, 93ko azaroan Joxe Elorza “Joxpi” idiazabalarrak istripu larria jasan zuen Aralar mendian, Anjel Jesus Arin beasaindar desagertuaren bila zebilela. Eritetxe desberdinetan egon ondoren, Arrasateko “Aita Menni” zentruan dago apirilaz geroztik osatze prozesuan. Zentru hau pribatua da eta erakunde ofizialek dirulaguntza ukatu egin diote familiari. Mediki txostenen arabera urte bete



Maitane eta Gurutze “Idiazabalgo Gazta” suspertze- lanetan dabiltza.

behintzat pasa beharko du bertan, 8 miloi pezetatako kostua suposatzen duelarik horrek.

Egoera horren aurrean, familiari laguntza eman asmoz, herriko hainbat elkarte bildu dira: Mendi Elkartea, lagunak, Probidentziako Ahizpak, Karitas, Parrokia eta Udala. Ekintza desberdinak aztertzen hasi eta, lehen pauso gisa, kontu korronteak irekitzea erabaki dute (Kutxan: 00.1036425.5 eta Lankide Aurrezkian: 199.0.00326.6). Kasu hauetan zenbateko dirulaguntza eman jakitea zaila izaten denez, orientazio modura, Idiazabalgo familia ba-

koitzari hilero 1.000 pzta. legokioketela aurreratzen digu Udalak. Laguntza bideratzeko modurik egokiena harpidetza egitea iruditzen zaie. Prest bazaude horretarako atera diren orriak bete eta Udaletxean utz ditzakezu ahalik eta azkarren.

“Giza premi honen aurrean eskuzabal izango zaretelakoan, gure esker ona luzatzen dizuegu. Hobe ematea, beharrean aurkitzea baino!”, gogorarazi digu Udalak.

Aloña Galarraga

Gero jator eta atsegina



BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54 **BEASAIN**

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfnoak: 880243 - 880133
BEASAIN

Aitzgorri F.K.a txapeldun Frantzian

Joandako maiatzaren 21, 22 eta 23an Frantziako Foulayronnes-en jokatu zen 10. torneo irabazi zuen "Aitzgorri" futbol taldeak, gure herriko eki-poak. Filaurrekoetara iristeko lau partidu jokatu behar izan zituen, honako emaitz hauek lortu zituelarik: Gourlizon-Aitzgorri (0-5); Miarritze-Aitzgorri (0-0, penaldietan galdu egin zen); Orleans-Aitzgorri (0-0, penaltietan irabazi egin zen); Perpiñan-Aitzgorri (0-3).



Finalaurrekoa "Wol-low" talde poloniarren aurka jokatu zuten, honi 2-0 irabazi ziotelarik. Ondoren, finala Miarritzeren aurka jokatu zuten, 5-0 irabazi ziotela. Beraz, torneo ezin hobea egin dute gure mutilek. Aipagarria da torneo osoan batere golik sartu ez zioten bakarra izan dela, honekin sari bat ekarri dutelarik, eta horrezaz gain golegilerik haundiena ere gure ekipoan daukagula, Ivan Zubeldia, honek ere trofeo ekarri duelarik.

Azken hiru urte hauetan joan da

Aitzgorri F.K.a torneo hau jokatzera, eta esan hiruretan jokatu duela finala, nahiz eta aurtengoan izan den txapeldun merezimendu guztiarekin. Beraz, urtebeterako Zegaman izango dugu Foulayronneseko trofeoa; bertan orain arte izan diren 9 txapeldunen harmarria dute erantsita eta orain Zegamako taldearena erantsiko zaio. Bestalde, uztailaren 4etik 9ra "Donosti Cup" torneo jokatu dute. Hor lau talde daude eta talde bakoitzetik bi lehenak sailkatuko dira finalaurre-

tarako. Hilak 12tik 15era Austriara joan ziren Wolfsberg torneoa jokatzera. Hemen ere finalera iristea lortu zuten arren, neurketa berdindu ondoren, penaltietara galdu zuten.

Zorionak eta eskerrik asko gure herriaren eta mendiaren izena hain goian uzteagatik.

 Eudurne Albizu



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



GRUPO
VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA

ASEGURUAK

Esteban Lasa,3 ☎160486 BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

GOIERRITARRA

3.700 ale
12.000 irakurle

Posta-zerbitzuaren egoera

Tolosakoa den Marian San Sebastian postariak bi urte beteak ditu gure artean, oposizioz Correos-en Ataungo postu fijoan lortu ondoren. Ataunen ez dago postetxerik ordea, eta berak alokatutako lokal batez baliatzen da postaria, korrespondentzia banaketa antolatu eta gainontzeko zerbitzuak eskeintzeko. Correos-ek ez du bulegorik jartzen eta arazo hau konpontzearen udaletxera zuzendu izan ohi da kartera bera, baina udal administrazioaren konpetentzia ez denez, udalak ez du bere gain hartzen kostu ekonomiko hori.



Mexikora joango den bikotea, elkartearen izenean Garbiñe Eskisabelek emandako saria jasotzen.

Ondorioz, zera gertatzen da, postari titularra falta denean, ordezkioak Lazkaotik bideratu behar izaten dituela Ataungo korrespondentzi banaketak, eta aldi berean, herritar bat postetxera joan beharrean aurkitzen denean, Lazkaora joan behar duela gertuenera. Hau da, administrazio publiko bataren ala bestearen aitzakia,

kiz, baina galtzekoak, ataundar guztiok; eta tartean postaria, epelak ere entzun behar izan bait ditu bere falta somatu duten herritar batzuen aldetik, antzeko arazoren bategatik izan zitekeela ausartu ordez eta behar den tokian maratarik jo aurretik.

Marian, abuztu osoan oporretan izango da. Birtarte horretan beraz, eta inork beste irtenbiderik ematen ez badu beintzat, aurten ere Lazkaoko bulegoak beteko du Ataungo posta-zerbitzua.

Mexicora, sarituak

Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkartearen zozketa-saria, Murkondo auzoko Julian Izarrola eta Joxepi Agirre senar-emazteek jaso dute. Ekainaren 24ko itsuen zozketako 7893 zenbakiarekin bat zetorren txartela, hauen seme batek zuen, eta honek gurasoei oparitu die. Julian eta Joxepi joango dira beraz Mexicora 16 eguneko bidaia egitera. Eta gauzak nola izaten diren, aspalditik omen zuen bikote honek, nora eta, Mexicora joateko asmoa, Joxepik berak esan zigunez. Ba orain ez dute aitzakiarik.

Joxe Begiristain

LELAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

IBIETA
ATEKETA

✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

☎ 88 10 19 ATAUN S. Martin

LEKIM HARROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Ibabe industrialdea, 11
☎ 16 12 83

LAZKAO

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
☎ 88 26 31

LAZKAO

Udaleko Kultur Batzordetik

Bada ia urtebete Udalak, horretan artzen diren lau enpresari, gure herrirako kultur proiektu bat egin zezaketela eskatu ziela. K-6 Kultur Gestioa, Siadeco Sozio-Ekonomi Ikerketa Elkartea, LKS-Consultores eta Eraman enpresak aurkeztu zituzten beren idatzizko txostenak eta Udaleko Kultur Batzordeko partaideei kopia bana banatu zitzaizen. Gerotik eta gaur arte gaia geldirik egon da eta hilabete honetan hasiak dira enpresa eta elkarte bakoitza bere txostena Batzordearen aurrean azaltzen.

Proiektu bakoitzak bere erara, beren metodologiak, batzuk sakonago eta besteak arinago, gure herrirako prestatu duten kultur proiektuan honako hauek aipatzen dituzte, besteak beste: Beneditarren liburtegia, Maizpide Euskaltegia, ondare monumental eta historiko-artistikoa (elizak, Jauregia...), Jesus Etxeberriaren bilduma, herriko kultur talde eta elkar-teak... Eta guztiek beren asmoen artean kultur etxea egitearena azpimarratzen dute.

Hasiak diren aurkezpen hauek bukatzean, Udalak erabakiko du zein Enpresari emango dion gure herrian kultur proiektua martxan jartzeko lana. Kultur Batzordea bezalaxe bilerak hauek ere irekiak dira eta gaiari buruzko informazioa jaso nahiz eritziak emateko, Udaletxera bertara jo dezakezue.



100. urteurrenean, ikurrina zut gure herriko Udaletxeko eta etxeetako bakoitzean. Zorionak!

Udalaren aurrekontuak

Uztailaren 13ko Ez-ohizko Osoko Bilkuran 1994ko aurrekontuak onartuak izan dira, EAJ eta Ea-ren aldeko botoak, PSOEn aurkakoak eta HB eta EUE-ren abstentzioarekin. Aurrikusten diren gastuak, guztira, 422.287.000 pezetakoak dira. Horietatik, adibidez, 70.200.000 pezeta hirigune historikoaren urbanizaziorako; Kiroldegiko birmoldaketarako 17.800.000 pezeta; Kultur sustapena


eta zabalkunderako 17.870.000; hezkuntza fisikoa, kirolak eta aisialdirako 40.519.000; ikastetxeetarako 14.155.000; hirigintza eta arkitektura sailerako, hirigune historikoaren urbanizazioa kanpo utzita, 68.164.000; nekazaritza eta abeltzaintzaren garapenerako 4.650.000 pezeta...

Eta guzti hori berdintzeko aurrikusten diren sarreretako batzuk honako hauek dira: hiri-ondasunetatik 33.600.000 pezeta; itaudutako tributueterako partaidetzatik 178.633.045 pezeta; Eusko Jaurlaritzako Hirigintza departamendutik 58.412.818; obra eta zerbitzuetarako Foru Planetik 24.383.000 pezeta...

Agauntza ibaia

Lehengo hilean eta oraingoan ere berriz, Agauntza ibai-ko arrainak tripaz gora azaldu dira. Begiratu batera beti nahi-ko txukun ikusten den uretan, apar eta usain txarrik gabe, isurketa toxikoak izaten direla argi eta garbi esan daiteke, elhenago ere egin izan diren uren azterketek zianuroaren presentzia behatu bait dute. Noiz arte horrela? Zianuroz zianuro, ur, olioak eta ahatz gain antzarrak, benetako hegaztiak!, ikus daitezke ibaian. Antzarrak "antzarren" artean beraz.

 Mari Joxe Madariaga



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKA

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Herri-eskolan aldaketak datorren ikasturtean

Datorren ikasturtean, hau da, 94-95 ikasturtean eta irakaslegoari dagokionez zenbait aldaketa izango dira gure herriko eskolan. Honela, 1984. urtetik eskola horretako irakasle izan den Mila Arrondo andreari Bizkaiko Arteaga herrian eman diote lanpostua, eta Hezkuntza Sailak zerbitzu-eginkizunetan Gipuzkoan geratzeko aukera izango dutela agindu badie ere oso zail izango da Gabiriako eskolara etortzea. Izan ere, eskola horretan atera den bigarren lanpostu finkoa Rafaela Caceres andreak eskatu baitu, zerrendan Milaren aurretik dagoelarik aukeraketarako. Xehetasun honen berri seguraski egun hauetako batean izango dugu, behinbetiko zerrendak hil honen erdi aldera ateratzekoak baitira.

Gabiriako eskolan guztira bi lanpostu finko izango dira: bat aspaldi honetan bertan diharduen Ane Miren Aizpururena eta bestea Rafael Caceresek beteko duena. Honetaz gainera, beste lanpostu erdi bat ere izango da Zeraingo eskolarekin banatuta. Lanpostu hau Milak hartzea zail izango da lanpostu hori betetzeko inglesekoa izan behar baitu. Honala bada, ia ezinezko izango da azken hamar urte hauetan gure eskolan aritu den Mila Arrondo irakasleak gurekin jarraitzea datorren ikasturtean.

Aurtengo aurrekontuak ahobatez onartu dira

Uztailaren 1ean egin zen Osoko Bilkuran ahobatez onartu ziren urte honetarako udalaren aurrekontuak. Onartu

den aurrekontuaren diru kopurua guztira 45 milioi ingurukoa da, iaz baino zertxobait gutxiago eta diru atalik nagusienak honako hauek dira: inbertsiotarako 15.000.000 inguru; agizko gastuetarako 15.000.000 inguru; pertsonal gastuetarako 6.000.000 inguru eta transferentzia arruntetarako 7.000.000 inguru. Bestalde, dirusarrerak ere antzekoak izango dira: zuzeneko zergak 4.500.000 pezeta inguru; transferentzia arruntak 29.500.000 pezeta inguru; ondare sarrerak 6.000.000 inguru eta tasak 4.000.000 inguru. Honela ba, aurrekontu honekin jokatu beharko du Udalak urte honetako ekitaldian.

 **Gabino Murua**

ORMAIZTEGI

Udaleku irekiak

Herriko kozkorreria ez da haserre ibili azken bi aste hauetan: udaleku irekiak izan dituzte 4 urtetik 12-arterainokoek. Era guztietako ekintzak antolatu zaizkie: irteerak (Segura eta Oiangura), herri-ingurua ezagutzeko ibilaldiak, antzerkia, eskulanak, joku eta jolas ugari, e. a. Antolaketa-lanetan ibili diren begirale gazteek ez dute ez atsedean handirik izan uda-hasiera honetan!

Nabarmentzekoa da, baita ere, umeez ekintza bakoitza puntuatzeko aukera izan dutela. Jokuak eta jola-

sak izan dituzte gogokoen, eta eskulanak gustatu zaizkie gutxien. Aipatzekoa, era berean, adin honetako umeez oraindik zein gutxi ezagutzen duten herri ingurua: Iraiko iturria ezezaguna omen zitzaizen asko eta askori.

Lierniko eguna

Herri-giro atsegina, asko gabe jende dextente eta, nola ez, ia urteroko eguzki errea izan genituen aurtengo Lierniko egunean. Arratsalde partean, ardi-mozketan herritarrak ger-

tatu ziren irabazle, eta soka-tiran ikuskizun dotorea eskeini zuten animatu ziren lau taldeek: hango kolore-gorritzea eta arnas-hotsa! Azkenean Juan Mari "Arzak"-en taldea izan genuen indartsuena, baina errebantxa-kontuak ere ari dira zabalitzen: San Migeletako zagi-ardoaren zain omen daude dagoeneko batzuk.

 **Iñaki Amundarain**


IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 L A Z K A O
(Gipuzkoa)

MERCERIA • LENCERIA



MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDIARAN ENPARANTZA, 3 - Tfnr. 88 76 15
ORDIZIA

"Zapotxin": joaldi selektiboak egiten dituen taldea

Bost goierritarrez osaturiko musika taldea dugu "Zapotxin". Honela banatzen dira izenak, jatorria eta eginkizunak: "Sindo" k, Legazpin bizi den beasaindarrak, baxua jotzen du; "Peiro", beasaindarra, honek bateria jotzen du; Martzelino, Idiazabalen bizi den zaldibitarra; hau gitarraz arduratzen da; Aurelio Zaldibian bizi da, honek bere ahotsa eskaintzen dio taldeari; eta azkenik, Izaro; teklatura eta trikitia dira honen erramintak. Hain zuzen, talde honen gainean apurtxo bat gehiago jakin nahian, Izarorengana jo dugu galdera sorta bat morralea harturik:

--Noiztik nora zabiltzate zuek musika mugida honetan?

--Oraintxe dela bi urte hasi ginen elkar tentatzen eta handik hara ekin genion ideia gauzatzeari; badirudi denok geundela gogotsu eta oraingoz ondo doa proiektua. Dei asko ari gara jasotzen, batez ere asteburuetarako.

--Nor da zuen musika horren eske datorrena?

--Beno, hemen beste ezer baino lehen



gauza bat esan nahi nuke: guk joaldi selektiboak egiten ditugu; esan nahi dut gure jarduna toki jakinetara mugatzen dugula. Oraingoz ez dugu berbena eta plaza irekietarako jaialdietan parte hartzeko asmorik, nolaz eta kasu bereziren bat ez den. Guk ezteietan, herri bazkari, jubilatuen jai, herri ekintza eta horrelako giro bilduetan jotzeko asmoa dugu oraingoz. Esate baterako, Eztei Azoka zela eta, Karmelo Baldan jo genuen, datorren urteko "Kilometroak" en joko dugu...

--Eta zuen erreperitorioa non sustaitzen da?

--Guk denetik jotzen dugu, batik-bat euskal kantak, trikitia tartean dela.

--Kanta berriak sortu, zaharrak berritu ala dauden daudenean jo... nola moldatzen zarete?

--Berriak, oraingoz, gutxi sortu ditugu. Zaharrak berritzen eta moldatzen bai, horretan saiatu gara. Arregloak denon artean egiten ditugu.

--Musikatik bizi zarete ala zer?

--Ez. Bakoitzak geure lana dugu eta musika hobya da guretzat. Kobratu ere hobya balitz bezala kobratzen dugu: saioko 60.000 pezeta. Pentsatu!

--Lau herri diferentetan bizi zaretelarik, entsaioak egiteko eta, nola moldatzen zarete?

--Zaldibian biltzen gara astean pare bat aldiz, Zaldibiko Udalak utzi digun lokalean. Nahikoa ondo moldatzen gara.

Trikiti klasea emateko prestatzen utzi genuen Izaro, eskerrak eman eta hurrena arte esanik agurtu genuenean.

 **Rufino Iraola Garmendia**

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 · 88 99 00
Fax: 943 · 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK,** eta abar.
- **MUSEOKO EKINTZAK:**
 - **Ikonoграфия lantegia:** musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
 - **Goierriko neska-mutilentzako ariketak:**
 - * Astelehenetan: 12-14 urte.
 - * Asteazkenetan: 9-11 urte.
 - * Ostiraletan: 6-8 urte.
- Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoen bidez!**
- BISITA ORDUTEGIA:**
 - Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
 - Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.
- SARRERA DOHAINIK**

GOIERRITARRA



88 96 12

IRATU KIRONAK

Hirigoien, 12
LAZKAO

☎ 16 10 16



ZURE ARGAZKI

D.Unanue Plaza,1
Tfnoa.: 88 93 25
ORDIZIA

Nekolalde, 1
Tfnoa.: 72 58 44
URRETXU

BILINTX

megadenda

- 800 m2
- Kultura eta Aisialdirako, denda kontzeptu berria.



IGANDE
ETA
JAIEGUNETAN
ZABALIK

MUSIKA

BIDEOAK

JOKU HEZIGARRIAK

ALDIZKARIAK

ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA

Fermin Calbeton, 21 - DONOSTIA. Tf.: 420080 / Fax: 420388